

## JASANGARRITASUNAREN ALORREKO INTZIDENTZIA KALTEGARRIAK AINTZAT HARTZEARI BURUZKO INFORMAZIOA

2021eko otsaila

“Finantza-merkatuetako parte-hartzailizat” edo “finantza-aholkularizat” hartzen diren entitateek informazioa eman behar dute jasangarritasun-faktoreen gaineko intzidentzia kaltegarriak aintzat hartzen dituzten ala ez azalduz, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko 2019/2088/EB Araudiak, finantza-zerbitzuen sektoreko jasangarritasunaren inguruko informazioa emateari buruzkoak (Dibulgazio Erregelamendua), agintzen duenez. Intzidentzia horiek aintzat hartzen ez badituzte, horren zergatia azaldu behar dute.

Honako hauek dira jasangarritasun-arriskuen integrazio-politikaren eraginpean dauden eta, beraz, informazio hori eman behar duten LABORAL Kutxa Taldeko entitateak:

- **Caja Laboral Popular Coop. de Crédito** (aurrerantzean LK). “Finantza-aholkularizat” hartzen da, “inbertsioen arloko aholkularitza-zerbitzua” ematen duelako.
- **Caja Laboral Gestión SGIIC SA** (aurrerantzean, CLGestión). “Finantza-merkatuetako parte-hartzailizat” hartzen da, inbertsio kolektiboko erakundeen gestorea delako.
- **Caja Laboral Pensiones SA GFP** (aurrerantzean, CL Pensiones). “Finantza-merkatuetako parte-hartzailizat” hartzen da, pentsio-fondoen eta BGAE-en gestorea delako.

Aipatutako obligazioa betetzeko xedez, jakinarazten dugu LABORAL Kutxa Taldeko entitateek gaur egun ez dutela jasangarritasun-faktoreen gaineko intzidentzia kaltegarriak aintzat hartzen CLGestión-ek eta CLPensiones-ek egindako inbertsioen gestioan eta LKren inbertsioen alorreko aholkularitzan. Izan ere, agiri hau argitaratzeko egunean, ez daude intzidentzia horiek aintzat hartzerantz behartuta, Dibulgazio Erregelamenduaren arabera. Gainera, ez dute oraindik jasangarritasun-faktoreen gaineko eragin kaltegarria ebaluatzeko beharrezko informazioa.